

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO

KANALAK

Banaketa:

Banaketa aldetik, StepDry gure bezeroengana helaratzeko **zuzeneko banaketa** izango da nagusiki gure web-orriaren bidez, horretan produktua erosteko behar den informazio guztia egongo da (neurriak, diseinua, ezuagarri fisikoak) produktuaren funtzionamendua eta erabilerak ere agertuko dira; gure produktua erabiltzeko arazoak ez izateko bezeroaren arreta izango dugu, bai eta web orrian txat bat bidez zalantzak argitzeko, baita telefono bat zuzenean deitzeko.

Zeharkako kanalak ere ez ditugu alde batera utziko, salmentaren zati handi bat haien bidez izango delako, beste empresa handiekin akordio batera iritsiko gara, esate baterako Leroy Merlin eta Brico Dépôt, haien denda handietan gure produktua salduko dute eta horrela StepDry erosteko bide gehiago egongo dira.



Bestalde, eraikuntza-enpresa handiekin akordio batera irits gaitezke etorkizuneko obretan gure StepDry ezarri ahal izateko. Horrela, StepDryaren erabilera gero eta ohikoagoa izango da, eta gure salmentak izugarri handituko dira. Adibidez, bi enpresa hauekin lan egin dezakegu: “Arrandi Eraikuntzak” eta “Eraikuntzak eta Berrikuntzak Bitxak”.



ARRANDI
CONSTRUCCIONES



Bitxak 20
AÑOS

Construcciones y Reformas Integrales

Hala ere, guk ere lokal bat edukiko dugu StepDry-aren erakusketa bezala izateko eta bezeroak StepDry, oinetako lehorrgailua, erosi baino lehen fisikoki ikusi eta probatu ahal izateko, gure lokalan ez dugu produktua salduko baina produktuaren ikuspena handitzeko.

Komunikazioa:



StepDry ikusgai izateko eta ahalik eta erosle gehienetara iristeko bi zatitan banatu dugu gure komuniakzio bideak.

Alde batetik gure **bezero txiki**etara StepDry-aren berria eta informazioa iristeko publizitate bideak erabiliko ditugu, esate baterako sare sozialen bidez. Sare sozialak produktu berritzaileari buruz informazioa zabalduko dute eta erosteko, gure web-orriaren esteka eskainiko dute. Erabiliko ditugun sare sozialak Facebook, Instagram eta X (lehen Twitter bezala ezaguna) izango dira.

Facebook-en eta Instagram-en StepDry aren argazkiak igoko ditugu, gure bezeroen arreta izateko. Adibidez neguan StepDry aren argazki gehiago igoko ditugu eta promozioak jarriko ditugu.

X-en (Twitter) berriz, bakarrik berri garrantzitsuenak argitaratuko ditugu. Adibidez gure web orrialdean arazoak badaude, X-en abisatuko dugu.



Beste aldetik gure **bezero handiak** StepDry-aren informazio jasotzeko gure saltzaileak haiekin zuzeneko komunikazio bat izango dute eta StepDry-aren buruz jakin nahi duten ezaugarri guztiak azalduko dizkiete.